

KULTUR MINISTERITZAK AUTOREEI EMATEN DIEN LAGUNTZAZ

Donostia, 1983-1-28

Juan San Martin

Axularrek ongi zion: "Mihian da ezagun nor den batbedera", eta guziok ondo dakigu herri bezala hizkuntzak ematen digula nortasuna. Hizkuntzak ordea literatura du bere ondasuna. Hori bai du bere edukina. Eta gure herriari bere nortasuna hizkuntzak ematen badio, literatur ondasunez arduratu beharra dugu.

Autonomiak ematen dizkigun ahalmenen laguntzaz, euskara berpizteko eta hedatzeko langintzetan sartuak gabiltza eta biderik aski urratu da hezkuntza mailan, euskararen normalizapeneko mailatan eta euskal telebista sortzen. Baina kreaizozko literatura, nonbait atzerako utzia da edo inor ez da arduratzen hortaz. Literaturak gizartean duen funtzioa bera ez ote da ulertzen? Nik, nere zalantzak ditut; baina, esango nuke ezetz, edo hortaz arduratu behar direnak ez direla konturatzen literaturak herri batentzat duen ondasunez. Horregatik, berriz ere esan beharrean naiz, literatura indartzen ez duen herriaren hizkuntzak ez duela etorkizunik.

Gurea bezalako hizkuntza tipi batean, literatur sariketak gehitzea ez da aski. Hortik ez dugu soluzio biderik. Zerbait konsagratuak edo izen entzute-tsua lortu duten idazleek, gehienez zer galdurik gehiago dute sariketa batean, eta gazte berrien promoziorako egokiagoak badira ere, alde zuretik dakite hedakunde tipiko hizkuntzan liburu salmentaren eskubideetatik ezingo direla bizi (eta gure artean eskubide horiek ere oraindik ez dira errespetatzen), eta bizi beharrerako: gogo hutsak, hegoak labur.

Beraz, soluzio bideak beste nonbaitetik lortu behar dira. Hortarako, aski dugu jakitea autore sortzaileei zer nolako laguntza ematen dioten Eskandinabiako hizkuntzetan adibidez. Laguntza hori, azken batez, ondasunen erosketa bai da; herri baten patrimoniorako aberastasuna denez. Aberastasuna liburu, aldizkari, irrati eta telebistan erabiltzeko, baina literatura indartu eta behar bezala jantzi ondorean, baita itzulpenez herbestera saltzeko ere. Hala ere, eta gezurra badirudi ere, gure artean guti batzuk baizik ez dira konturatzen hortaz, edo, bestela, teilatutik ari gara etxegintzan.

Literaturgintzarako ahalmena dutenen langintzarako doainak ahalik eta neurririk zabalenean aprobetxatzen ez badugu, gure etorkizunaren kaltetan

ari gara. Obra dexente bat lortzeko, egileak urte osoa behar du eta hortarako aukerarik ematen ez bazaio, urteak ihes egin ondorean alperrikakoa izanen da. Bai, utziko digu eleberri, antzerki edo saiakeraren bat. Baina, hori, bat hamar edo gehiago utzi beharrez. Euskal kanta zaharrak, herri ipuiak eta autore zaharren obren oinordeko gara eta gure kultura, hein batean, ondasun horren errentaz bizi da. Baina, kultur ekintzak, etorkizunera begira, sorketa bizkortzea eskatzen digu, hizkuntzaren iraupena nahi baldin badugu.

Eta, laguntzak sortzeko, maiz ez dugu urrutira joan beharrik ere, Espainian egiten bai da. Beraz, 300.000.000 hiztun dituenak egiten badute, guk zergatik ez? Behar bada, Espainiakoa ez da izango eredugarriena, baina sariketak baino hobeto letorkio gure hizkuntz egoerari eta horren adibideak eskainiko ditut.

Egile sortzaileendako laguntzak Kultur Ministeritzak sortu zituen 1980. urtean eta bere xehetasunak B. O. E. n.º 166, uztailaren 11koan (1980) publikatu zituen. Bere bete beharra autoreei beren sorkuntza lanetara gehiago arduratzeko asmoa da, era berean gazte berrieri lanerako eta promozionatzeko aukera eskainiaz. Dei idekia da, nornahik parte har dezan.

Lehen deiak harrera ona izan omen zuen eta ondorean bigarren eta hirugarren deiak ezagutu dira. Eta, horietako baten ekintza esperientzien berri emango dut nere txosten honetan, zeren erderari berez hain zabalkunde handi duenez holako deia interesgarria bazaio, zer esanik ere euskara bezalako hedakunde tipiko hizkuntza batentzat askoz ere interesgarriagoa iduritzen zaigula.

Lehen laguntza deian L. Mitxelena joan zen Euskaltzaindiaren izenean (uste dut E. Knörr-ek egin zuela ordezkio, baina legez ezin dute ordezkorik onar). Bigarren goan ni joan nintzen.

Deiaren arabera, honako laguntzak ziren 1981ean: saiaera, eleberri eta poesiaz, jenero bakoitzean hamabina laguntza eta itzulpenetan hamar. Laguntza bakoitzerako 500.000 pezeta.

Laguntza jasotzeko eskaria nornahik egin dezake. Hortarako, egileak bere *curriculum vitae* aurkeztu behar du; presentatu nahi duen lanaren memoria, bere eskema adieraziz; eta lanaren muestra idatzi bat, bi planatukoa, idazkera erakutsiz.

Hautaketa egingo duen epaimahaia honako hauek osatzen zuten: Buru, liburu eta zinematografia promozioko zuzendaria; aholkulari: Real Academia Españolak izendatutako bi pertsona, Real Academia Gallega-ko bat, Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindiatik beste bat, Institut d'Estudis Catalans-dik beste bat, Idazleen Elkarteko bi eta Itzultzaile Elkartetik (A. P. E. T. I.) beste bi. Ministeritzak berak idazkaria eta beste aholkulari bat jartzen ditu, baina hauek bozik gabe.

Erabakiak epaimahaikoen botoz hartzen dira. Eta holako beste zenbait xehetasun edozein sariketetan ohi den bezala.

Diru laguntzaren erdia, laguntza nortzuri eman erabaki bezain azkar egiten da, beste erdia ordea lana bukatzean. Lanak urte beteko epean bukatu behar dira. Baina, lanak bukatzean, bekak ematen ohi diren bezala, epaimahaia berriz bilduko da eta hartu diren lanak egileek agindutakoa eta onartua bezala dauden ikusiko dira. Lana bete ez duenari laguntza ukatzen zaio, lehen aurreratutako erdia ere itzularaziz.

Egileek, laguntza irabaztearekin, beren egile eskubiderik ez dute galtzen. Egile batek, laguntza irabazi duen lan hori nonbait argitaratzen duelarik, Kultur Ministeritzak 200.000 pezetara arteko liburu aleak erosiko dizkio, edo beretarik 500 ale.

Epaimahaikoek Kultur Ministeritzan biltzen direnean, presentatutako lan proposamenak aurkezten dira, eta lanak aztertzeako taldeak hautatzen dira, bizpahiru epailari jenero bakoitzerako jarriaz, azkenean guzien artean berriro begiratzeko. Hautaketarako aburuak ere markatzen dira, orientabide. Adibidez: Hamabi lanetatik erdiak baino gehiago, lautik hirukoa edo, autore konsakratuen alde jokatzeko, horiek laguntza izan dezaten eta era berean kalitatearen mailari eutsi; gainerakoan gazteak promozionatzeari begira, autore ez ezagun edo entzute gutikoen artean, gazteagoen alde jokatzu.

1981eko urrian eta azaroan egin genituen presentatu ziren lanen hautaketak. 133 lan ziren saiaeran; 99 eleberrian; 118 poesian; eta, 65, itzulpenetan. Saiaera aztertzeako eskaini nuen nere lankidetzeta, usterik erdal literatura nik baino hobeto ezagutzen zutela han ziren guziek edo gehienek. Eta, gero ikusi nuenez, ongi hautatu nuen.

Onartu ziren lanen artean, poesian, katalanezko bi hautatu ziren eta gailagoz bat. Euskarazko lanik, bat baizik ez zen presentatu: eleberri bat. Baina hara aurkeztu ziren erdarazkoen aurrean, ene iduriz, ez zuen aski maila. Hartarako izendatu zen lan taldeak eleberriaren eritzia eskatu zidan eta idazkiz azaldu nuen; gero, azken onartzen egunean lan guziak epaimahai osoak banan bana begiratzean ere berriz agertu nuen nere iritzia.

Iragan azaroz eta abenduz (1982), lan bukatuen azterketa egin zen eta saiaera bat, bi eleberri eta hiru itzulpen ez ziren onartu, aldeztu aurretik eskaini zutena bete ez zutelako.

Autoreen laguntzarako Kultur Ministeritzak erabilitako arauak euskarentzat baliagarriak derizkiot. Holako zerbaiti hur ematen dion bekak sortu ditu Gipuzkoako Diputazioaren Hizkuntza Zerbitzuak, baina ezta iristen Kultur Ministeritzak eratzen duenaren mailara.

Holako ekintza bat nolabait burutzeari beharrezkoa deritzat eta han erabilitako agiri eta materialak hemen uzten ditut Euskaltzaindiaren agiritegirako, horretaz interesatzen denak, zehatz ezagutu dezan. Hala ere, era honetako ekintza bat lortzeko, ongi iduritzen zait Eusko Jaurlaritzako Kultura sailari eta behar bada gure Diputazioei ekintza horretaz arduratze eskaria egitea, 1980ko uztailaren !!ean Boletin Ofizialak (166 zenb.) argitaratua aditzera emanez.